



Lan monografikoa

Euskararen arauak eta erabilerak administrazioan,
arlo juridikoan zein kriminologiaren alorrean

ERTZAINTZAREN EUSKALDUNTZEAN, ZER BERRI?

1

Enare URRESTARAZU CUADRADO
Ane FADRIQUE BLANCO

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Euskararen egoera Ertzaintzan.-1. Bilakaera eta lege-markoa.-2. Gaur egungo egoera.-III. Euskararen erabilera normalizatzeko planaren edukia.-1. Aplikazio eremua eta helburuak.-2. Planaren neurriak.-2.1. Neurri orokorrak.-2.2. Ekintza zehatzak.-IV. Konklusioa.-Bibliografia.

I. Sarrera

«Azken urteetan Ertzaintzak urrats batzuk egin ditu gure herritarrei zerbitzu elebiduna eskaintzeko. Orain polizia zerbitzuaren jarraikako hobekuntzan jauzi kualitatibo bat egiteko gai gara», horrela aurkeztu zuen Segurtasuneko sailburu den Estefanía Beltrán de Herediak [Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana](#). 2014ko urriaren 22an aurkezturiko plan hau, Ertzaintza berriaren ibilbide-orria izango da euskararen arloan. Hauek izan ziren Segurtasun sailburuak prentsaurrekoan adierazitako hitzak, www.irekia.euskadi.net ataritik jasoak.

Jarraian, lan honen bitartez, helburua da Ertzaintzaren eremuan burutu den euskararen erabilera normalizatzeko plana honen berri ematea, lortu nahi diren helburu orokorrak eta partikularrak aztertzeko jomugarekin. Beti ere kontuan izan behar da plan honek berebiziko garrantzia duela, lehenengoa baita Ertzaintzaren euskalduntze prozesua aurrera eramaten duena.

Izan ere, balioztatu da guztiz ezinbestekoa dela ertzainek ere euskarazko polizia-zerbitzua eskaintzea euskal gizartea gizarte elebidun gisa aintzat hartzen den heinean. Hori dela eta, Ertzaintzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak euskara arloan ibilbide berria finkatzen du hainbat ekintzen bidez eta horiek guztiak azalduko ditugu funtsezkoak diren helburuak nabarmenduz.

Horretarako, lehenik eta behin, lehen atal batean, prozesu honek jasan duen bilakaera aztertuko dugu, eskaini izan den lege-markoa oinarri izanik. Ondoren, gaur egun Ertzaintzan euskararen egoeraren inguruko datuak alderatuko ditugu, honek planaren beharra erakutsiko digularik. Behin hau buruturik, bigarren atalean, arauketa berri honek zein neurri orokor jasotzen dituen aztertuko dugu eta hauek gauzatzeko neurri zehatzak zeintzuk diren. Azkenik, modu laburrean, konklusioa planteatuko da.



II. Euskararen egoera Ertzaintzan

1.1. Bilakaera eta lege-markoa

Plan honen bidez zein helburu bilatzen diren ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, Ertzaintzaren euskalduntzearen bilakaera azaltzea, urte hauetan zehar lege-markoa zein izan den plazaratuz. Modu honetara, gaur egungo errealiterara hurbilduko gara.

Ertzaintza Euskadiko polizia integrala da, horrela ezartzen duelako **Gernikako Estatutuaren 17.artikuluak**: *Konstituzioaren lehen xedapen gehi-garrion aurreikusitako for-araubidearen egune-ratze-prozesuaren baritik, Euskal Herriko erakunde-egokituakoa zaien, Estatutu honetan zehazten den eran, autonomia-lurraldean gizakiaren eta ondasunen babeserako eta herri-bakea zaintzeko Autonomia Erkidegoko poliziaren araubidea....*

Ertzaintzak, ordea, bere sorreratik erronka berezi bati aurre egin behar izan dio: euskal herritarrei polizia-zerbitzu elebiduna eskaintzea. Izan ere, herritarrek eskubidea dute haiek nahi duten hizkuntza ofizialean zuzentzeko poliziako-kideei eta hauek, dagokion hizkuntzan erantzuteko gaitasuna izan behar dute. Polizia-lan hurbil eta espezialitatea eskaintzeko bidean, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea izan dira Ertzaintzaren esparruan jomuga nagusiak.

Bilakaera honetan, euskararen normalizaziorako lege-markoa zein izan den azaltzea bereziki garrantzitsua da. Gogoan izan behar dugu, Ertzaintza bera, erakunde moduan, 1982. urtean sortu zela eta euskararen normalizazio prozesua arautzen duen lehen dekretua 1998. urtean onartu zen. Aurrerago aipamen egingo diogun arren, hamasei urteko tarte horrek prozesua zeharoa moteltzea eragin zuela ukaezina da.

Ertzaintzaren lehen euskara normalizatzeko plana **30/1998 Dekretuaren** bidez xedatu zen, zeinak gutxienezko helburuak, hizkuntza eskakizunak eta euskalduntzeko neurriak finkatzen zituen. Aipatutako dekretu onek euskara normalizazio prozesua arautu eta antolatu zuen hamar urtez, baina soilik lehen hizkuntza eskakizuna galdatu zuen. Dena den, plan honen oinarrian bost irizpide jarraitu ziren: hizkuntza eskakizunak eta baliokidetzak, derrigortasun datak, hizkuntza eskakizunen egiaztatze-maila, euskara ikastaroak eta euskararen erabilera plana.

Behin lehenengo plan honen epealdia amaituta, 2008. urtean bigarren aldiari ekin zion Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak; baina gobernu aldaketa dela medio, Dekretu berriaren onarpena berriro ere atzeratu zen. Honela, azkenean, **76/2012 Dekretua onartu zen**¹. Dekretu honek ere euskara normalizazio plana arautzen zuen Herrizaingoan hamar urtez aurreko planaren irizpideak sendotuz, besteak beste, lehen hizkuntza eskakizunaz gain, bigarrenkoa ere eskatuz. Kontuan izan behar da plan honetan Ertzaintzari exijitzen zitzaion lehen hizkuntza eskakizun hori Europar marko bateratuaren B2 mailaren parekoa zela eta bigarren hizkuntza eskakizuna C1 mailarena. Neurri horrez gain, akademia ikastaroak azpimarratu behar dira, azken hamabost urte hauetan 4.044 ertzainek euskaltegietan lanorduz kanpo euskara ikasi baitute, Segurtasun Sailaren diru-laguntza


¹ http://www9.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_41?e&201202516 Hemen ikusgarri 76/2012 Dekretua, maiatzaren 22koa, Ertzaintzaren euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen Dekretua aldatzen duena.





jasotzeaz gain. Hona hemen datuak (marra urdinak euskara ikasteko ertzain liberatuak; eta marroiak, aldiz, diruz laguntzak jaso dituztenak lanorduz kanpo klasetara joaten)²:

IKASLE KOPURUA



Hau kontuan izanik, azken urteotan hizkuntza eskakizuna betetzen duten ertzainek nabarmenki gora egin duten arren, euskararen erabilerarekin ez da gauza bera gertatu³. Alegia, ez zaio hainbesteko garrantzirik eman herritarrekiko harremanetan, lan-harremanetan edo etengabeko prestakuntzaren euskararen erabilera sustatzeari. Hori dela eta, euskararen normalizazio plana berrikustearren beharra ondorio horietatik datorrela kontuan izan behar da.

1.2. Gaur egungo egoera

Dekretu hauek jarraituriko jarduera-ildoek esker, helburu ugari lortu dira Ertzaintzaren eremuan. Benetan zein eraginkortasun lortu duten aztertzeko, ordea, interesgarria da gaur egun Ertzaintzaren eremuan euskararen normalizazio egoeraren berri ematen duten hainbat datu aztertzea.

- **Hizkuntza eskakizunak:** Ertzaintzaren eremuan bi hizkuntza eskakizun bereizten dira; 1. hizkuntza eskakizuna, Europar Marko Bateratuaren B2 mailarekin parekatzen dena, eta 2. hizkuntza eskakizuna, C1 mailarekin parekatzen dena. Gaur egun, 2014. urtean, 1. Hizkuntza eskakizuna 2.850 ertzainek dute eta 2. hizkuntza eskakizuna 156ek. Guztira hizkuntza eskakizunen bat egiaztatua dutenen [datuak](#) hauek dira (Ikus dokumentuaren 7-8. Orrialdeak):

ERTZAINAK ETA HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK	ZENBAT	%
HE EGIAZTATUTA DUTENAK	3.006	37,58
HE EGIAZTATU GABE DUTENAK	4.994	62,42
GUZTIRA	8.000	100

²

<http://www.ertzaintza.net/wps/wcm/connect/c49f120045ece1aa9b879f9f8718a68f/Plana.pdf?MOD=AJPERES&CACHEID=c49f120045ece1aa9b879f9f8718a68f> Hemen ikusgarri azaldutako grafikoa (Planaren 9-10 orrialdeak).

³ Honela jasotzen da Seguritasun Sailaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren 11. orrialdean.





- **Derrigortasun datak:** 2008an, Ertzaintzaren lanpostu zerrendako dotazioetatik %31,1ek derrigortasun-data zeukan. 2013an Segurtasun Sailburuaren Aginduaren bitartez, Ertzaintzaren lanpostu zerrenda aldatu da eta 509 derrigortasun data berri jarri ziren. Helburua, 2012ko Dekretuak ezarri zuena, %43,87 derrigortasun-indizera iristea izan da (Ikus dokumentuaren 8. Orrialdea).

Ertzaintzaren egiturari dagokionez, lau unitate administratiboak osatzen dute Ertzaintza (23 orrialdea eta ondorengoak): jendaurreko unitatea, giza izaerako unitatea, izaera orokorreko unitatea eta, azkenik, izaera bereziko unitatea. Lehen bi unitateak dira, gehienbat, jendaurreko funtzioak betetzen dituztenak eta, beraz, lehentasun handiena izango dute euskalduntze prozesuan. Izan ere, alde batetik, jendaurreko unitateen lanpostuko funtzio gehienak herritarrekin gauzatzen dira zuzenean, bai idatziz zein ahoz; eta bestalde, giza izaerako postuak ere kanpoko harreman ugari dituzte, eta noizean behin jendaurreko funtzioak dituzten postuak dira. Hori dela eta, guztiz garrantzitsua da bi unitate hauetan lehentasuna azpimarratzea, baina baita gainontzeko bietan ere. Unitate administratibo bakoitzeko datuak ere eskuragarri daude planean bertan, zehazki, 23-37 orrialde bitartean ([plana](#) ikusgarri).

Ildo honetatik, hizkuntza normalkuntzarako neurriak ezartzerakoan unitate bakoitzak izango duen lehentasuna bi ideiatan oinarritzen da: batetik, unitate bakoitzaren izaeran; eta bestetik, unitatearen hizkuntza-indizean. Ertzaintzan, Administrazio Orokorrean bezala, hizkuntza-indizea honako formula hau aplikatuz kalkulatu da: euskaldunak + (ia euskaldunak/2). Ondoren, polizia-unitate bakoitzaren esparru geografikoaren arabera unitate bakoitzari dagokion hizkuntza-indizea kalkulatu da.

Datuei erreparatuz, %60tik gorako indizea duten unitateak 18 dira; %60 eta %37ko indizeen arteko unitateak 37; eta %30eko indizearen azpitik daudenak beste 15. Beraz, ikus daiteke oraindik ere unitate asko direla erdibidean kokatzen diren horiek eta, ondorioz, badirela oraindik ere hainbat zailtasun planak aurreikusten dituen helburuak betetzeko. Hauek dira euskara gaitasunaren datuak ikasketa mailaren arabera⁴:

1.3.5 Euskara gaitasuna ikasketa mailaren arabera

Ikasketa maila	HE2	HE2(%)	HE1	HE1(%)	B1	B1(%)	< B1	< B1(%)	GUZTIRA
C2	9	0,31	713	24,47	79	2,71	2.113	72,51	2.914
C1	55	2,48	914	41,26	82	3,70	1.164	52,55	2.215
B	26	1,74	550	36,91	78	5,23	836	56,11	1.490
A2	37	5,89	337	53,66	19	3,03	235	37,42	628
A1	29	4,58	336	53,08	43	6,79	225	35,55	633

Horrez gain, ezin dugu ahaztu egoera soziologikoa ere, asko eta asko direlako adin aurreratuko ertzainak, ikasketa gabekoak eta, hortaz, zailtasun handiak dituztenak euskararen normalkuntza prozesuari eusteko. Horren ondorioz, ezinbesteko da zailtasun hauek guztiak kontuan izatea jarraian azalduko ditugun planaren neurri orokorrak zein zehatzak aztertzerakoan. Esanguratsua da, adibidez, Ertzainen %34ak eskola graduatua

⁴ Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren 22. orrialdean informazio hau eskuragarri.





baino ez dutela ([datuak ikusgarri](#)). Ondorioz honek, zalantzarik gabe, euskara ikasi eta barneratzeko orduan arazoak eragin ditzake.

Beraz, hutsune eta ahulezia horietaz jabeturik, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak lehenengo aldiz *Euskara Normalizatzeko Plana* abian jartzen du, 2015.urtean abian jarriko dena. Aurkezturiko dokumentuan argi adierazten da, gaur egun, Ertzaintzaren hizkuntza-politika euskara ikastaroetan eta hizkuntza eskakizun eta derrigortasun datetan oinarritzen dela eta plan honi esker, hizkuntza politika antolatu, bateratu eta eraginkorra izatea bilatu nahi dela, **euskararen erabileraren aldeko neurriak** era koordinatu eta global batean hartuz.

III. Euskararen erabilera normalizatzeko planaren edukia

Behin zehazturik zein izan den azken urteetako ibilbidea eta gaur egungo egoerari buruzko datuak azalduz, plana modu sakonagoan aztertuko dugu. Horretarako, lehenik eta behin aplikazio eremua eta helburuak modu orokor batean azalduko ditugu, garrantzitsua baita ikuspegi orokor bat izatea. Jarraian, neurri orokorrak eta zehatzak zeintzuk diren azalduko ditugu, berrikuntzei aipamen eginez.

2.1. Aplikazio eremua eta helburuak (Ikus planaren 51.-53. Orrialdeak)

Nortzuei aplikatuko zaie? Lehenik eta behin, planaren aplikazio-eremuari erreferentzia egitea ezinbestekoa da. Aplikazio pertsonalari dagokionean, plan hau Ertzaintzan zerbitzu aktiboan dauden ertzainen artean ezarriko da, hau da, ertzain funtzionario, praktiketako agente zein prestakuntzan dauden agenteen artean.

Zein denbora tartean? 2014. urtean sartuko da indarrean eta 2017ko abenduaren 31a bitartekoa izango da; plana bost urteko aldi bitan banatuz. Aldi bakoitza amaitzean, ebaluazio txosten bat aurkeztu beharko da jarraipena egiteko.

Nolakoak izango dira antolaketa egiturak? Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko plana garatzeko ezinbestekoak dira honako [antolaketa egiturak](#):

- Ertzaintzaren Euskara zerbitzua.
- Ertzaintzan Euskararen Erabilera Planaren Batzorde Nagusia.
- Ertzaintzan Euskararen Erabilera Planaren Batzorde Teknikoa.
- Ertzaintzan Euskararen Erabilera Planaren Negoziazio Batzordea.

Zeintzuk dira helburu nagusiak?

1. Euskararen ahozko erabilera gehitzea.
2. Euskararen idatzizko erabilera gehitzea.
3. Euskara irudi korporatiboan txertatzea.
4. Ertzainen Euskara gaitasuna gehitzea.
5. Saileko arduradunen konpromisoa areagotzea.



2.2. Planaren neurriak

Bertan, lehenengo eta behin, garrantzitsua da aipatzea Ertzaintzaren atalen hizkuntza izaera zehaztu eta atal bakoitzaren hizkuntza esparruari dagokion hizkuntza-indizea ezarri dela. Ondoren, izaerak eta hizkuntza-indizeak kontuan hartuta, atalen lehentasunak ezarri dira. Azkenik, euskararen erabilera areagotzeko neurri orokorrak eta zehatzak (atalaren lehentasunaren arabekoak) ezarri dira (Ikus planaren 23-42. Orrialdeak).

A. Neurri orokorrak

- **Derrigortasun datak eta hizkuntza prestakuntza:** Derrigortasun data berriak jartzerakoan, unitateen lehentasuna kontuan hartuko da. Horretarako, ezinbestekoa izango da honako irizpide hauek betetzea: Lanpostuak edota dotazioak herritarrengan duen hurbiltasuna, unitatearen esparru linguistikoa eta lanpostua kokatuta dagoen unitatearen izaera linguistikoa.

Hizkuntza prestakuntzari dagokionean, Ertzaintzan dauden euskalduntzeko bideak indartu nahi dira eta horretarako ikastaro ezberdinak gauzatuko dira. Euskaldunak ez direnentzat bi ikastaro mota antolatuko dira:

- Liberazioak HE1 eta HE2 prestatzeko.
- Oinarrizko ikastaroko euskara gaia.

Euskaldunak direnentzat bi ikastaro mota antolatuko dira:

- Ikastaro bereziak euskararen erabilera lanpostuan hobetu eta gehitzeko.
 - Ertzainen etengabeko prestakuntzan, arian-arian, euskara komunikazio-hizkuntza bihurtzea.
- **Baliabide informatikoak:** Aplikazio informatikoak lanpostuetan banatzerako orduan, kontuan izango da lehentasunezko unitateak diren edo ez. Hauetan beti euskarazko bertsioak jarriko dira eta gainontzekoetan bi bertsioen artean aukeratzeko utziko zaie. Honez gain, Ertzaintzarenak propioki diren aplikazioek euskarazko bertsioak izan beharko dituzte. Beste berrikuntza esanguratsua da dokumentazio polizialak izapidetzeko tresna informatikoen ere dokumentuak bi hizkuntzetan sortzeko sistema automatikoa izan behar dutela.
 - **Iragarkiak, argitalpenak eta internet:** Plan honen bidez ezarri da Ertzaintza eta Segurtasun Saileko argitalpenak hizkuntza ofizial biak erabiliko dituztela eta euskararen presentzia gutxienez %50a izango dela. Honez gain, Ertzaintza eta Segurtasun Saileko Internet, Intranet eta sare sozialetan hizkuntza ofizial biak erabili ahal izango dira. Gainera, web orriak euskaraz erabiltzeko moduan agertuko beharko dira. Hizkuntza ofizial bietan egin beharko dira ere iragarki zein publizitatea kanpainak.
 - **Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak:** Plan honek arautzen duen beste esparru bat litzateke hizkuntza ofizialen erabileraren ingurukoa. Jarraian bildutako irizpideak unitate guztiek bete beharrekoak izango dira. Lehenik eta behin, euskara gatzelania bezala zerbitzu hizkuntza izan behar duela jasotzen da. Honek esan nahi du, herritarrekiko zerbitzuetan, hala nola, telefonoko harremanetan, sare sozialetan... euskara zerbitzu hizkuntza izatea berrmatuko dela.



Ahozko komunikazioari dagokionez, ertzainek haien arteko harremanetan euskara lehenestea agintzen zaie, beti ere euskara dakitenen artean. Herritarrekiko harremanetan, herritarra euskaraz ari bada edo euskaraz egin nahi duela esaten badu, ertzain elebiduna bilatuko da. Idatzizko komunikazioetan ere, dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, beti ere herritarrak ez badu adierazi euskaraz hutsez edo gaztelania hutsez eskuratu nahi duela.

B. Ekintza zehatzak

Azaldurikoak lirateke, oro har, planak ezartzen dituen neurri orokorrak. Hala ere, Ertzaintzan Euskararen Erabilera Plana hau gauzatzeko, ekintza zehatz batzuk burutuko dira eta hauen berri ematea interesgarria da. Izan ere, hauek erakusten baitute praktikan nola gauzatu den proiektua.

Lehenik eta behin, Planaren komunikazioa begira, komunikazio-ikastaro bat butuko da ertzainen artean (Honen bidez hizkuntza eskubideen berri emango zaie, euskararen erabilera plana zehazki azaldu...). Honez gain, bereziki neurri zehatzak ezarri dira ertzainen prestakuntzari dagokionean. Horretarako neurri hauek ezarri dira:

- Urtero-urtero, batez beste, **100 ertzain liberatzea** euskara ikasteko. Honen bidez, Ertzaintzaren 1. eta 2. hizkuntza eskakizuna prestatuko lukete. Egun 25 dira; 2015. urtetik aurrera, Segurtasun Sailak euskara ikasteko ikastaroetara 80 eta 100 pertsona bitartean joan daitezela nahi du.
- Euskara ikasteko liberazioetan parte hartzeko **baldintzak egokitu eta hobetzea**, bai eta diru-laguntzak.
- Ertzaintzaren prestakuntza orokorrean euskara txertatzea.

Dena den, Ertzaintzan Euskararen Erabilera Plan hau gauzatzeko, badira ere zenbait ekintza zehatz, besteak beste, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. Hauei dagokionez, bi talde bereizi behar dira: unitate guztiek bete beharrekoak eta soilik unitate batzuk bete beharrekoak.

Lehen kasuan, zerbitzu hizkuntzan euskara gaztelera bezain hizkuntza erabilia izan behar du eta, ondorioz, herritarrei harreman guztia euskaraz izatea bermatu behar zaie. Harreman hau bai eremu idatzian zein ahozko eremuan bermatu behar da. Beraz, herritarrak aukeratzen duen hizkuntza erabili beharko da beti Ertzaintzaren aldetik, eta herritarra euskaraz ari bada edo euskaraz egin nahi duela esaten badu, eta une horretan ertzain euskaldunik ez badago, ertzain elebiduna bilatzea beharrezko izango da. Era berean, administrazio desberdinen arteko harremanak eta Segurtasun Saileko unitateen artekoak euskaraz izango dira, idatziak ele bietan idatziko baitira azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.2. artikuluari jarraiki. Hortaz, euskara lan hizkuntza bihurtuko da eta, gainontzeko idatzi arrunta guztientzat nahikoa izango den arren idatziak hizkuntza bakar batean egitea, euskaraz ala gaztelera; Ertzaintzaren erabateko unitateentzat eta, oro har, Segurtasun Sailaren barruko prozeduretan sortzen diren idatziak, gutxienez, ele bietan egingo dira eta denborarekin, ertzain euskaldunen kopuruak gora egin ahala, euskaraz egitea aurreikusten da.



Bigarrenik kasuan, unitate bakar batzuek bete beharreko irizpideei dagokionean, bi irizpide ditugu jasoak: batetik, lehenetsun handiko unitatean sortzen den dokumentazioa euskaraz idatziko da, neurri hau Ertzaintzaren lehenetsuneko unitateentzat izanik; eta bestetik, prozedura administratiboari hasiera emango dion hizkuntza erabiliko dela beste euskal administrazioetara bidali eta Ertzaintzaren hizkuntza-indizea %60tik gorako unitateetan egindako idatzietan. Horrez gain, kontuan hartuko dira idatzia jasoko duen herri administrazioaren egoera soziolinguistikoa eta erakunde horrek, hala adierazten badu, zein hizkuntzatan nahiago duen jaso erantzuna.

Horiez gain, esan bezala, hizkuntza ofizialak erabiltzeko arauekin bat datozen itzultzeko irizpideak jarraituko dira eta hizkuntza sustatzeko ekintzak martxan jarriko dira, horretarako alor ezberdinak aztertuko dira: batetik, irteera eta sarreraren erregistroa; bigarrenik, kanpoko harremanak (ahozko komunikazioan, idatzizko komunikazioa, beste administrazioen arteko ahozko komunikazioa, baita horien arteko idatzizko harremana ere); eta hirugarrenik, barruko harremanak aspektu berdinei erreparatuz.

Gainera, %60tik gorako hizkuntza-indizea betetzen duten L1 unitateetan hizkuntza-sustapenerako neurriak proposatu eta garatuko dira: ahozko eta idatzizko euskara erabilera hobetzeko ikastaro laburrak eta trebatze programak. Hizkuntza-sustapen neurri hauek mikroplanen bidez aurrera eramango dira, alegia, Segurtasun Sailak ezartzen dituen sustapen-neurrien bidez eta euskara bultzatzeko programen bidez. Ildo beretik, %60tik gorako indizea duten L3 unitateetan hizkuntza sustatzeko ekintza berdinak jarraituko dira helburu hori bete dadin.

Aipatu behar da ere, euskararen erabilerari begira, lehenetsuneko ataletan euskara erabiltzeko programa zehatzak sustatuko direla, trebatze-saio moduan. Azkenik, herritarrekiko komunikazioari dagokionean, bi proiekturi bultzada emango zaie. Alde batetik, EKINBIDE zerbitzua indartuko da (EKINBIDE Segurtasun Saileko organo bat da, Ertzaintzak ematen duen zerbitzua hobetzeko herritarrengandik iritsitako ekimenak jasotzeko, aztertzeko eta sustatzeko ardura duena) eta bestetik, DUDATAN zerbitzua abian jarriko da, Segurtasun Saileko lan-itunpeko eta ertzainen kontsultei irtenbide emateko.

IV. Konklusioa

Aurreko guztia kontuan izanik eta laburbilduz, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planarekin, batetik, euskararen erabileraren gehikuntza lortu nahi da, euskaraz harrera emateko herritar euskaldunei, batik bat, euskal guneetan; eta bestetik, euskararen gaitasunaren gehikuntza, ertzain euskaldunen kopuruak gora egin dezan euskalduntze prozedurak indartzeko helburuarekin.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da, Ertzaintzaren euskalduntza prozesua oso motela izan dela. Lehenago aipatu dudan moduan, Ertzaintza 1982an sortu zen eta 1998an onartu zen euskararen normalizazioa abian jartzen zuen lehen dekretua. Hamasei urte horietan hizkuntza eskakizunik ez galdatzeak min handia egin zion euskalduntze-prozesuari. Izan ere, urte horietan 7432 ertzain kontratatu ziren eta lan deialdi hauetan guztietan meritu gisara baloratu zuten euskararen ezagutza. Honez gain, aurretiaz azalduko ditugun datuen bidez ikusi ahal izan dugu, 1998ko Dekretuaz geroztik ere ez direla bete



euskalduntze-prozesuaren helburuak, hutsune handiak topa ditzakegulako zerbitzu elebiduna herritarrei eskaintzerako orduan.

Etorkizunari begira, argi dago, Ertzaintza ez dela berehalakoan euskaldunduko. Izan ere, Dekretu honek topo egiten du, besteak beste, Ertzaintzaren eremuan lan egiten duten langileen hezkuntza-maila baxuarekin. Bereziki esanguratsua da Ertzainen %34ak eskola graduatua baino ez izatea. [\(Ikusi datuak\)](#). Honek, zalantzarik gabe, euskara ikasi eta barneratzeko orduan arazoak eragin ditzake.

Hala ere, bada etorkizunari begira itxaropena sortu dezakeen datu bat: datozen urteetan 4.000 ertzainek erretiroa hartuko dute eta 24. promozioan hautatutakoen behin-behineko zerrendan agertzen direnen %92k, esaterako, hizkuntza eskakizuna dauka. Beraz, ikusi beharko da ea Ertzaintzan *Euskararen Erabilera Normalizatze*ko Plan honek eta erakunde aurreikusten den erreleboak, euskalduntze prozesuari behin betiko bultzada eman diezaioketen. **Badira datuak itxaropenarentzat, ea ba!**

Bibliografia

*Segurtasun Sailean Euskararen Erabilera Normalizatze*ko Plana, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila, Vitoria-Gasteiz, 2014ko urrian aurkeztutakoa:

<http://www.ertzaintza.net/wps/wcm/connect/c49f120045ece1aa9b879f9f8718a68f/Plana.pdf?MOD=AJPERES&CACHEID=c49f120045ece1aa9b879f9f8718a68f>

Webgunetako informazioa: www.ertzaintza.net webgunetik ateratakoa (euskadi.net):

http://www.ertzaintza.net/wps/portal/ertzaintza/lut/p/c5/04_SB8K8xLLM9MSSzPy8xBz9CP0os3gXDydTo2AzN0tLE9dAdxNz3yBLAwgAykeaxRvgAI4G2HR7uJhTUbe_j2eYaaCxo7ujSaizl09goJMhTj7qLg_1pcTlSHaHg8IZv9tB8njM9_Plz03VD04t1YUL8gNBYIIgywTC0cApPmpMA!/dl3/d3/L2dJQSEvUUt3QS9ZQnZ3LzZfREhCNTJTnky5OTRFUUC0N01PNzAwMDAwMDA!/

http://www.ertzaintza.net/wps/portal/ertzaintza/lut/p/c5/04_SB8K8xLLM9MSSzPy8xBz9CP0os3gXDydTo2AzN0tLE9dAdxNz3yBLAwgAykeaxRvgAI4G2HR7uJhTUbe_j2eYaaCxo7ujSaizl09goJMhTj7qLg_1pcTlSHaHg8IZv9tB8njM9_Plz03VD04t1YUL8gNBYIIgywTC0cApPmpMA!/dl3/d3/L2dJQSEvUUt3QS9ZQnZ3LzZfREhCNTJTnky5OTRFUUC0N01PNzAwMDAwMDA!/

IRAOLA, Arantxa (2014-10-23): *Jendaurrean aritzen diren postuetarako eskatuko zaie euskara ertzainei*, Berria Egunkariako albistea:

<http://www.berria.eus/paperekoa/1813/011/001/2014-10-23/jendaurrean-aritzen-diren-postuetarako-eskatuko-zaie-euskara-ertzainei.htm>

IRURETA, Onintza (2014-07-27): *Ertzaintzak lehen aldiz Euskararen Erabilera Plana izango du*, Argia aldizkariako albistea:

<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2425/ertzaintzak-lehen-aldiz-euskararen-erabilera-plana-izango-du>